Enpresetan arrisku psikosozialak genero-ikuspegia aintzat hartuta prebenitzeko

dekalogoa

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

10 AHOLKU

Koronabirusaren pandemiak bat-batean agerian utzi ditu gizartean baziren aldaketa batzuk. Azkar batean ari dira nagusitzen eta egonkortzen, eta enpresetan eta prebentzio-zerbitzuetan ere badute eragina; horietako batzuek, gainera, pisu handi hartzea ekarri digu pandemia honek: telelana kasurako.


Enpresetako egoera berria eta laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko modu berria birpentsatzeko garaia dugu, beraz; bereziki, arrisku psikosozialen prebentzioa. Ez dugu ahaztu behar laneko arriskuen prebentzioari (aurrerantzean, LAP) buruzko legeria duela 25 urtekoa dela, gizartearen eta lan-merkatuaren egoera oso bestelakoa zenekoa, eta artean gutxi batzuek baino ez zituztela gogoan arrisku psikosozialak.

Bat-batean etorri zaigun errealitate berri honek hausnartzeko balio beharko liguke, aukerak aztertu, ikuspegi hauek kontuan hartuta:

- Enpresen, negozioen, langile autonomoen eta langile guzti-guztien prebentzioaren kudeaketa eta lan-osasuna, ikusteko zer neurri har ditzakegun dauden arriskuak edo, etor litezkeenak, saihesteko eta prebenitzeko, adibidez, Covid 19.
- Enpresek eta langileek egin ditzaketen aldaketak; horrek aukera eman diezagukeelako pentsatzeko zer-nola nahi dugun lan egin eta ekoitzi, zenbat egin nahi dugun aurrera, eta zer eredu soziolaboral nahi dugun erdietsi.

Horiek horrela, OSALAN – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak dekalogo bat egin du, honako helburu hauek ardatz hartuta:

- Dokumentu arin bat prestatzea, gure erkidegoko enpresek arrisku psikosozialen kudeaketari erantzun praktiko eta egokia eman diezaioten.
- LAP psikosozialetan jardunbide egokiak sustatzea, enpresa eta langile bakoitza jabetu dadin burutzen duen lanak, jarduerak eta atazak eragin bio-psiko-sozioekonomikoa duela, eta arriskuak saihestuz, lehendik daudenak gutxituz, kudeaketa ona eginez, jarrera arduratsuak eta solidarioak edukiz, osasunari kalte ez egitea lortuko dugula, eta kalte ekonomikoa saihestea.
- Prebentzio psikosoziala birplanteatzea, eta hobetzeko aukerarik dugun ikusi, enpresaren agertokiak aztertuz, eta Prebentzio Plana eta Kudeaketa Plana uztartzen saiatu, arrisku psikosozialak ere planaren parte direla onartuta.



1. PREBENTZIO-PLANA EGIAZTATU

Helburua da zure enpresako prebentzio-neurrien eta prebentzio-jardueren eraginkortasuna egiaztatzea.

- Egin prebentzioaren kultura integralaren alde.
- Berrikusi jardunbide egokien politika.
- Komunikazioa: aztertu langileekiko kontsulta- eta partaidetza-mekanismoak.
- Sortu langileek prebentzio-planaren garapenean duten parte-hartzea neurtzeko adierazleak.
- Eguneratu prebentzioaren arloko legeria guztia.

2. EGITURA ETA ANTOLAKETA AZTERTU

- Egin enpresaren ezaugarrien analisia, genero-ikuspegia ere aintzat hartuta, zure enpresaren laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa hobetuko duten helburuak eta adierazleak zuen-zuenera egokituta definitzeko:
  - Langileak sexuaren, adin-taldearen, lanpostuen, edukiaren, jardueren eta zereginen arabera bereizi.
- Langile bakoitza bakarra eta errepikaezina da: identifikatu ezazu, emaiozu balioa eta konpromisoa, lagunduiozu gustura egoten.
- Aztertu ardura-postuak eta zuzentzen dituzten taldeak.
- Aztertu lupaz enpresaren lidergoa. Zure negozio-emaitzaren kalitateari buruzko komunikazio, prestakuntza eta informazio mailaren irudia ematen duten funtsezko argazkietako bat da.

3. ERREBISATU LANEKO BALDINTZAK

ERRESILIENTE izaten ahalegindu, eta egokitu lan-baldintzak egoera sozial, ekonomiko eta sanitario berrietara (lana langilearen neurrira egokitu).

- Lana antolatzeko formula malguak sustatu, kontziliazio erantzunkidea erraztuko dutenak. Identifikatu aurrez aurreko lana beharrezkoa den edo urrutiko lan-moldeetara egokitu daitekeen.
- Begiratu zein den langileen partaidetza- eta informazio-maila. Parte hartzen al dute denek beren jarduerei lotutako erabakiak hartzean? Lanean laguntza ematen al dute? Motibatuta sentitzen al dira?
- Eraitsi komunikazio-oztopoak. Jendeak bere ideiak adierazi eta harremanak izan nahi dituzte. Sortu partekatzeko komunikazio-kanal eta/edo -tresna bat.
- Aztertu ea gizarte-eragileen eta prebentzio-ordezkarien bidez langileen eskubideak bermatzen diren.
- Jarri abian genero-desberdintasunak murrizteko tresnak.
- Berriz aztertu jarduerarik ez izatearen kostuak eta absentismoaren ehunekoa (gaixotasun arrunta, lan-istripua eta/edo gaixotasun profesionala).

GOGOAN IZAN!!!
LAN-PREKARIETATEA ARRISKUA DA.
EGIN DIEZAIOGUN AURRE!

4. EGIAZTATU PREBENTZIO-TRESNAK

- Identifikatu lehengo eta oraingo arrisku-faktore psikosozialak.
- Berriro aztertu arrisku guztiak, eta berriz ebaluatu, gertatu diren aldaketa guztiak kontuan hartuta eta prestatutako kontingentzia-planen arabera.
- Identifikatu agertuko diren premia berriak.
- Ez utzi alde batera langileen ordezkarien ahotsa eta iritziak.
- Sortu langileen kolektiboaren parte-hartzea neurtzeko adierazleak.
- Ezarri prebentzio-eraginkortasuneko adierazleak: ikuskapen sistematikoak, barne-auditoriak, prestakuntza-premiak berrikusi, Laneko Segurtasun eta Osasunaren kudeaketaren balorazio-inkestak.

5. EBALUATU BETI ETA BEREZIKI ARRISKU PSIKOSOZIALAK

- Gogoratu enpresan dauden lanpostu adina ebaluazio psikosozial egin behar direla, langileetako bakoitzaren aniztasuna eta ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta.
- Erabili enpresako langileen ezaugarrietara ondoen egokitzen den arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodoa.
- Egin kasu Prebentzio-zerbitzuaren aholkularitzari: haiek esango dizute zein den zure enpresaren ezaugarrietarako ebaluazio-metodologiarik egokiena.
- Egin ahalegina egungo eta/edo etorkizuneko arrisku psikosozialetako bakoitza identifikatzen. Helburua da enpresako pertsona guztien segurtasun eta osasun biopsikosoziala babestea.
- Eguneratu prebentzio-prozedura eta gatazkak konpontzeko prozedura.

6. PLANIFIKATU PREBENTZIO-NEURRIAK ARDURADUNEKIN, ETA JARRI EMAITZAK LORTZEKO EPE BAT

- Planifikatu arrisku psikosozialen prebentzio eguneratuaren diagnostikora egokitutako neurriak. Zehaztu zehatz-mehatz ezarri beharreko prebentzio-neurriak, lortu beharreko adierazleak eta horien betetze-maila, modu proportzionatuan.
- Ez ahaztu prebentzio-neurri bakoitza aplikatzeaz arduratuko den pertsona bat izendatzea, bai eta hura abian jartzeko eta lortzeko epemuga bat ezartzea ere. Erabilgarria izango zaizu, halaber, ahal den neurrian aplikazioaren kostua zehaztea.
- Jarri honakoa martxan: Kontingentzia-prozedurak-planak, enpresa-plana, berdintasun-plana, gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko prozedurak, etab.
- Txertatu hartu beharreko prebentzio-neurri bakoitzean genero-ikuspegia duten prebentzio-jarraibideak, eta hartutako neurrien genero-eragina ebaluatu.

7. BILATU ENPRESA OSATZEN DUTEN GUZTIEN PARTE-HARTZEA ETA HAIEN IRITZIA AINTZAT HARTU

- Eman aukera enpresan lan egiten duten pertsona guztiei parte hartzeko eta egokien irizten dieten prebentzio-neurriak proposatzeko.
- Modu aktiboan entzun eta elkarrizketa bultzatu.
- Aztertu enpresako prebentzio-antolaketako modalitatea egokia den, eta, hala badagokio, zer espero duzun zure prebentzio-zerbitzutik eta zer eskaintzen dizun.

8. ERREBISATU KALITATE-ADIERAZLEAK

- Aztertu itzazu prebenitzeko modukoak diren laneko gertakari, gorabehera, kalte, istripu, gaixotasun eta abar guztiak.

- Eskatu zaintza epidemiologikoari buruzko txostena prebentzio-zerbitzuari, langile guztien osasun-egoera zein den jakiteko. Horri esker, laneko segurtasuna eta osasuna etengabe hobetzeko programak (urtebetera edo urte bira egon litezkeen arazoak konpontzeko) edo politikak (epe luzera begira) ezarri ahal izango dituzu.

9. SUSTATU KONTZILIAZIO-NEURRIAK

- Ziurtatu eta malgutu ordutegiak.
- Bultzatu telelana.
- Ezarri lana eta familia bateragarri egiteko politikak, estresa eta lanaldi luzeak ezabatzea, eta lan-giroa hobetzea helburu hartuta.
- Ezarri gizarte-onura batzuk: jatorduetarako txartelak, garraio-plusa...
- Bilatu enpresako langile guztien lana eta familia-bizitza erraztuko duten tresnak.

10. EZARRI ENPRESA-EREDU OSASUNGARRIA

- Egin enpresa osasungarri baten alde:
  - Kudeatu langileen osasuna ikuspegi integral eta integratua aintzat hartuta.
  - Kontuan hartu osasuna enpresako politika guztietan.
- Aplikatu sedentarismoa saihesteko neurriak.
- Optimizatu instalazioak langileak hobeto egoteko.

GOGOAN IZAN!
Ezarri prebentzio-jarraibideak genero-ikuspegia kontuan hartuta Prebentzio Sistemaren etapa guzti-guztietan!

BIBLIOGRAFIA

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (*BOE*, 269. zk., 1995eko azaroaren 10ekoa). [Azken kontsultaren data: 21/06/01].Hemen eskuragarri: https://www.boe.es/eli/es/l/1995/11/08/31/con

Azpiroz A, Álvarez V, Carramiñana S, Lekue B, Padilla A, Pérez B, Robertson M. *Laneko arriskuen prebentzioan genero-ikuspegia integratzeko jarraibideak*. Barakaldo. Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea; 2017. [Azken kontsultaren data: 21/06/01]. Hemen eskuragarri: https://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/libro/gestion_201710/eu_def/adjuntos/genero_ikuspegia_jarraibideak.pdf

CEPYME ARAGON. *Decálogo para la prevención de riesgos psicosociales en la empresa. 2010*. [Azken kontsultaren data: 21/06/01]. Hemen eskuragarri: https://issuu.com/cepymearagon/docs/2010decalogo

Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el Trabajo (INSHT). *Algunas orientaciones para evaluar los factores de riesgos psicosocial (edición ampliada 2015).* Madrid. Instituto Nacional de Seguridad e Higiene en el Trabajo (INSHT); 2015. [Azken kontsultaren data: 21/06/01]. Hemen eskuragarri: https://www.insst.es/documents/94886/96076/Maqueta+18+4+Angel+lara.pdf/9b38de84-a9e0-4c08-bce4-92b5ff4f0861

Olaciregui Garbizu, Iñigo; Azkoaga Bengoetxea, Ignacio Mª. *Enpresan LAP Plana ezartzeko eskuliburua*. Barakaldo. Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales; 2005. [Azken kontsultaren data: 21/06/01]. Hemen eskuragarri: https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/libro/gestion_200515/eu_200515/adjuntos/gestion_200515.pdf

OSALAN- Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. *Arrisku psikosozialak prebenitzeko gida. Prebentzioko ordezkariarentzat*. Barakaldo. Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales; 2014. [Azken kontsultaren data: 21/06/01]. Hemen eskuragarri: https://www.osalan.euskadi.eus/contenidos/libro/ergonomia_201410/eu_200905/adjuntos/Arrisku%20Psikosozialen%20Gida%20-%20Prebentzio%20Ordezkarientzat.pdf

Izenburua: Decálogo para la prevención de riesgos psicosociales con perspectivas de género en las empresas / Enpresetan arrisku psikosozialak genero-ikuspegia aintzat hartuta prebenitzeko dekalogoa • Argitaraldia: 1.a, 2021eko urria. • Alekopurua: 400 ale. • © Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi/Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. • Argitaratzailea: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea - Dinamita bidea, z.g. - 48903 Barakaldo (Bizkaia). • Internet: www.osalan.euskadi.eus • Fotoconposizioa eta inprimaketa: Imprenta Garcinuño S.L. - Ctra. San Vicente, 13 - 48510-Valle de Trápaga-Trapagaran (Bizkaia). • Lege-gordailua: LG BI 1653-2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Osalaneko Liburutegiaren katalogoan aurki daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca de Osalan:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0024